

2016-17 denboraldia

Eskola Kirola eta Esku Pilota

2016-2017 denboraldian 48 parte-har-tzaile ibili dira Eskola Kirolean, 18 neska eta 30 mutil, 1. mailatik hasi eta 6.era bitartean. 3. eta 4. mailetakoez 3 talde misto osatu dituzte eta hiru kirolean ibili dira Tolosaldean: saskibaloia, lehenengo; eskubaloia, ondoren; eta, buka-tzeko, areto-futbola. Izan da beste talde bat ere, 5. eta 6. mailetak mutilez osatua. Talde hori bigarren postuan geratu zen saskibalo-i-sailkapenean, eta areto-futbolearen ere lan ona burutu dute.

Eguberrietako *Shanti Txapelketan*, berriz, neskek osatutako taldeak egin zuen sekulako lana: Txapeldunak izan ziren, Benjamin nesken mailan partidu guztiak irabazita; eta ez Txapelketa horretan bakarrik, ekainean jokaturako *San Juan Torneoan* ere irabazle izan ziren. Denboraldi borobila neska hauena! Mutilek ere hartu dute parte Txapelketa horretan: bi talde Benjaminetan eta bat Alebinetan.

Esku-pilotan ere ibili dira Tolosaldean zehar partidak jokatu eta urte osoan entrenamenduan. 27 izan dira



16-17 denboraldian Eskola Kirolean ibilitako gaztetxoak entrenatzaileekin.

denera, neska bakarria horien artean. Alebinetan 3 talde 3ko eta Benjaminetan 4 talde 3kotan banatuta. Maiatza bitartean izan ziren partiduak, eta hortik ekainera bitartean *Ataria Txapelketan* hartu zuten parte. Alegiako pilotalekuan jokatu ziren finalerara iritsi zen bikote berastegi bat: Lax Hernandez eta Lorditz Garmendia.

Lan bikaina egin dute urte guztian zehar: ikasi, lagun berriak egin eta hainbat leku ezagutu.



Lorditz Garmendia eta Lax Hernandez Ataria Txapelketan.



Benjamin nesken taldea txapeldun.




PINTURAS
Inaki margoak

Mobila. 600 561 750

e-mail: im1@euskalnet.net

Ulpe etxea, 14 - 20492 Berastegi



Jon Azpiroz Tenerifen helmugara iristen, Jon Zubillaga Zegama Aizkorrin eta Iker Saizar Tolosako T2Tn.

Mendi lasterketak

Jon Azpiroz iazko bide beretik doa, podiumetik podiumera. 2016ko irailean *Alpinutrans* zirkuituko irabazle izan zen; hiru probek osatzen dute lasterketa hori, guztira 322 km eta 23.183 metro, eta hirurak osatzea iritsi zirenak 9 korrikalari izan ziren guztira. 2017ko garaipenen artean, Frantziako

Trail des Citadelles eta Tenerifeko *Blue Trail* aipatu behar dira. Frantziakoa apirilean izan zen, eta aurrenekoa izan zen Jon 73 km-ak osatzen, 7:06:20ko denboran; Tenerifekoa, berriz, ekainean jokatzen, eta bigarren postuan amaitu zuen Jonek, 7:39 orduan eginda 97 km-ko lasterketa.

Maiatzaren 28an, *Zegama-Aizkorri*

XVI. mendi maratoian Jon Zubillaga, berastegiar bakarra aurtengoan, 209. postuan helmugaratu zen 5:20:28 denbora eginda.

Leitzako *Euskal Herriko Mendi Erronka*, 67 km-ko lasterketa, ekainaren 3an izan zen, eta hiru berastegiarrek hartu zuten parte: Iker Saizar, 57. postuan helmugaratu zen



Iban Agirrezabala eta Xabier Azpiroz Erroizpen, eta Fermin eta Teresa Caminos.

harategia

ULi

urdaitegia

Kale Nagusia 2-3
20.492 Berastegi
T. 943 68 40 51

KULUNKA

HAIR OTOPSI ENA OINERAKOAK

♥

ZUKOZ

9A BASTIZARRA?

HAIR OTOPSI ENA OINERAKOAK
TEL. 949 513 620
URDIAK 9:00-20:00 | BARRIO 4 - BILBO - 48100

(08:24:35); Iñigo Lizarribar, 332.a izan zen (10:48:08); eta Iban Agirrezabalak, Lekunberrin, erretiratu egin behar izan zuen ondorezik zegoelako.

Halere, ekainaren 18rako bere onera etorrita, Tolosako *T3T Maratoiaren* III. edizioan, 7. iritsi zen helmugara Iban Agirrezabala 04:54:12n. Aurten goan, lehenengo aldiz, hiru tontorrak (Ernio-Uzturre-Erroizpe; 42,7 km) egin beharrean bi tontor (Uzturre-Erroizpe; 24,5 km) egiteko aukera ere izan da, eta bost herritarrek hautatu zuten aukera hori: Iker Saizar, 28. (02:42:01); Santi Zubeldia, 62. (03:03:02); Xabier Azpiroz, 75. (03:10:11); Fermin Caminos, 100. (03:20:28) eta Teresa Caminos, 168. (03:55:09).

Atletismoa

Korrika Lasterketen VIII. Txapelketan 2017ko urtarriletik hasita abendura arte kirol-probak ligan lasterketak izango dira Euskal Herriko hainbat txokotan. Ekaina bitartean egin diren lasterketen sailkapen orokorrean, Arantxa Atxukarro aurrena doa, 9 lasterketa egin ondoren lortutako 863,42 puntuarekin, eta bere kategorian, Beterano 1 emakumezkoetan, ere aurrenekoa da. Ligako proba horretan eta beste hainbat lasterketetan 7 aldiz igo da Arantxa podiumera: bi aldiz lehenengoa izan da; hirutan 2.a; eta beste bitan 3.a.

Jabier Malkorrek ere baditu 823,81 puntu, 9 lasterketetan parte hartuta, eta bigarren postuan doa bera sailkapen orokorrean; bere kategorian, berriz, Be-


terano 2 gizonzkoetan, lehenengoa da.

BTT jaitsiera

Beñat Egialde Otermin 2017an hasi da BTT jaitsieretan parte hartzen, eta orain artean izandako hiru probetan aurrealdean ibiltzea lortu du: maiatzaren 6an, Igantzin, izan zen lehenengo jaitsiera eta 3. geratu zen bere kategorian (00:03:12.21); maiatzaren 20an, Etxebarrian, berriro ere 3. (00:03:16.28); eta uztailaren 8an, Antzuolan, 6. (00:04:02).

Eskia

Mikel eta Olaia Plazas anai-arrebek garaipen ugari lortu zituzten joan den neguan. Olaia *Roller Ligako* Txapel-duna izan zen, 2016ko urritik azarora bitarteko lasterketa guztiak irabazita (Uhartekoa, Arratekoa, Erlaitzekoa, Artikutzakoa, Urgullekoa, Hernialdekoa eta Arditurrikkoa). Mikel ere Txapeldun



Arantxa Atxukarro.



Beñat Egialde.

IDIAZABAL

GAZPIO

Jose Inazio Ugartemendia
Gazpio baserria, Izotzalde 21
20492 Berastegi
T. 606.199.080

Ardi latxaren esne gordinez
egindako gazta ondua



Olaia Plazas eta Mikel Plazas Espainiako txapeldun.

**Mikel Plazas garaile
izan zen Distantzia
Luzeko Espainiako
Txapelketan eta Olaia
Plazas bigarren**

izan zen Liga horretan bertan.

2017an sartuta, urtarrilaren 14an eta 15ean, Olaia Plazasek *Espainiako Txapelketan* podiumera igotzea lortu zuen Tuxent-La Vansa (Lleida) iraupen eski estazioan. U-14 mailan, hirugarren ailegatu zen helmugara sprint lasterketan (0,8 km.). Mikel 4.a izan zen bi egun horietan.

Urtarrilaren 22an, *Apertura Mayencos* lasterketan hartu zuten parte Som-

porten, eta biak suertatu ziren garaile: Mikel, Junior 1 mailan, 41'09" denborarekin; Olaia, Infantil 2 mailan, 16'10" denborarekin.

Urtarrilaren 28an eta 29an, *Euskadiko Txapelketan* podiumera igotzea lortu zuten bi anai-arrebek Belaguako iraupen eski estazioan.

Otsailaren 12an Somporten iraupen eskiko *X. Donostia Saria* lehiatu zen. Olaia Plazasek garaipena lortu zuen 3 kilometroko emakumezkoetan, 10'17" denboran. 10 kilometro gizonezkoetan Mikel Plazasek 3. postua lortu zuen 39'32"ko denbora eginda.

Otsailaren 26an, Benasquen distantzia luzeko iraupen eskiko *Espainiako Txapelketa* ospatu zen. Bertan, Mikelek bere mailan (15 kilometrokoan) garaipena lortu zuen. Olaia, berriz, bigarrena izan zen bere mailan.

Areto futbola

Naroa Zubiria Ordiziako taldean ibili da 16-17 denboraldian Areto Futboleko bigarren mailan, eta hurrengo denboraldian ere bertan jarraituko du. Aragoiko, Galiziako, Errioxako eta Kantabriako taldeen aurka jokatu dute, Bizkaiko bi eta Nafarroako talde batez gain, eta 8. postua lortu dute sailkapenean.

Bere ahizpak, Oihanek, Alegiako Intxurre taldean eman du denboraldia. Kadete kategorian jokatu du eta 3. postuan geratu ziren. Horregatik igoera fasean jokatzeko aukera izan zuten, baina azkena geratu zirenez, lehengo liga berean geratu da taldea.

Futbola

Iñaki Urkizu, aurreko urtean bezala, Irungo Real Union taldean ibili da denboraldi honetan ere. Bigarren Mailako B taldeko sailkapenean, 7. postuan bukatu du talde honek.

Beheragoko mailetara jaitsita, badira hainbat futbol jokalar berastegi batean eta bestean ibili direnak. Endika Pelaezek Tolosa C.F. 3. mailan jokatu du, 17. postuan geratu dira. Ander Zubillaga Euskal Ligan ibili da Tolosako taldearekin eta, bigarren geratuta, igoera izan du taldeak Liga Nazionalera. Egoitz Agirrezabalak Ohorezko Kadete mutiletan jokatu du,



Naroa Zubiria.

MARCEL

ARTÍCULOS DE PELUQUERÍA / ILEAPAINDEGIKO PRODUKTUAK

TOLOSA / Santa Clara 9. 20400

943 67 19 30

ORDIZIA / Urdaneta 56. 20240

943 88 62 60

Hamaika urtez izan den futbol 7 taldeak desegin beharra izan du jokalariai falta dituztela-eta

Tolosan. Lehenengo postuan geratu da taldea eta, horri esker, Euskal Ligara igo dira. Tolosan jokatu dute hurrengoek ere: Aimar Zubillaga Kadete 1 mailan, 4. geratu dira; Julen Sarasola Infantiletan, Gipuzkoako Kopa irabazi dute; Irati Rekondo Ohorezko Kadete neskak taldean, 2. postuan geratu da taldea; eta Ane Goikoetxeak Infantil neskak kategorian.

Mireia Barriolak Euskal Ligan jokatu du Beasain taldearekin, eta 7. geratu dira. Oihana Ugartemendiak ere Liga berean jokatu du Tolosa C.F.rekin. Hauek Beasaingo taldea baino postu bat atzerago geratu dira, 8.enean.

Oier Garaiburu Zizurkilgo Danena taldean ibili da, Kadete 1. kategorian, eta 5. geratu dira sailkapenean. Kopa ere jokatu dute, eta horretan 2. geratu dira. Josu Goikoetxea ere Danenan ibili da.

Futbol 7 taldea

11 urtez izan dugu Berastegin Futbol 7ko taldea, eta aurrean, 2017an, desegin beharra izan du taldeak jokalariai falta direla-eta. Azken denboraldi hau beste herri batzuetako jendearekin osatuz



Futbol 7 taldeko azken jokalariai.



Futbol 7ko hasierako taldekideak.

egin dute aurrera, baina jarraitu ahal izateko, 18-20 urte bitarteko gazteak behar dituzte, eta inor ez zaie animatu. Azkenaldian lehen postuetan egotea lortu duen taldea izan da eta, jokalarien

esanetan, antolatzaileen talde kuttunenetako bat izan omen da Saloura egin dituzten bidaiak medio, baita hemengo txapelketetan erakutsi duten umiltasun zein leialtasunagatik.



JAKINTZABIDEKO
 KIROLETAKO
 BASURDE ELKARTEA

 BERASTEGI